



## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure proiektuaren **funtsezko baliabideak** honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin **baliabide fisikoen** aldetik, batetik, barruko instalazioak izango ditugu. Bertan formakuntzak eta bilerak egiteko. Bertan izango ditugu beharrezkoak zaizkigun materialak, adibidez, ordenagailua, arbela, proiektorea, telefonoa, baratzeko tresnak, jostailuak/objektuak, sukaldeko tresnak...

**Baliabide intelektualen** aldetik berriz, ezagutzak eta bitartekariak ditugu, Horien artean, lehenago aipatu dugun moduan, Onargi aplikazioa, psikopedagogoak... Gure enpresak kanpo eragileekin menpekotasuna izango du. Beste alde batetik, hainbat adituekin kontaktatuko dugu (Elkarteak, datu baseak eta adituak.)

**Giza baliabideei** dagokienez, taldeko kide bakoitzak bere funtzioak izango ditu, esate baterako;

Aitor Rodriguez kirola, yoga... eta beste hainbat kirol burutzen ditu eta horregatik erraztasuna izango du kirolarekin lotutako txangoak diseinatzeko.

Mikel Garmendiak, ekonomiaren arloa menperatzeaz gain, administrazioaz arduratuko da.

Oihane Pelaezen kasuan, Naturarekin harremana du eta Aitorrekin batera tailerrak eta txangoak diseinatuko ditu.



Ihintza Garmendiaren kasuan, erakunde ezberdinekin, adituekin... bitartekaritza egingo du.

Azkenik Eider Lasak, Teknologia erabili eta ulertzeko gaitasuna du, horrez gain diseinuaren mundua ezagutzen eta menperatzen du.